

## IKUS-ENTZUNEZKOAK ON-LINE

### FILMAK

### DOKUMENTALAK

### TELESAIOAK

### LITERATURA

Etxeko epeltasunean gozatzeko, adin guztietarako ikus-entzunezkoen bilduma bat dakarkizuegu proposamen honetan: haurrentzako eta helduentzako filmak, askotariko gaiak jorratzen dituzten dokumentalak, zientziari eta literaturari buruzko telesaioak, antzerki-emanaldiak, eta haur eta gazteentzako literatura-lanak (bideo-ipuinak). Baliabide gehienak Interneteko beste webgune batzuetatik ekarri dira eta EIMA Katalogoaren bidez ere ikus daitezke.

Materialen bat ondo ikusten ez bada edo behar bezala funtzionatzen ez badu, jar zaitezte gurekin harremanetan [eimakatalogoa@gmail.com](mailto:eimakatalogoa@gmail.com) helbide elektronikora idatzita. Material gehiago ikusteko, jo ezazue [EIMA Katalogoaren](#) webgunera.

#### -Haurrentzako zinema

##### -Filmak

Film gehienak EITBko webgunetik ekarri dira.

#### -Dokumentalak

Sorta honetan, 200 dokumental baino gehiago daude ikusgai, eta horietako asko Argia Multimedia eta EITB Nahieran webguneetatik ekarritakoak dira. DBHn eta Batxilergoan erabiltzeko moduko material ugari dago eta gaien arabera bilaketak egin daitezke iragazkiak erabiliz.

#### -Sautrela

##### -Artefaktua

Literatura, irakurzaletasuna, historia, filosofia... lantzeko lagungarriak izan daitezke bideo hauek. Bideoak katalogatzeko, aztertutako gaiak, elkarrizketatutako pertsonak, gomendatutako liburuak... hartu dira kontuan.

#### -Elhuyar-Teknopolis

Elhuyarrek eta EITBk ekoiztutako saioa. Bilduma honetan zientziari buruzko 200 bideo baino gehiago daude ikusgai. Iragazkiak erabiliz, tratatzen diren gaien arabera findu daiteke bilaketa.

#### -Antzerki-emanaldiak

Antzerki-emanaldien artean, pastoralak ere badaude ikusgai.

#### -Bideo-ipuinak (Haur eta gazteentzako literatura)

Pako Eizagirrenen aittu.eus webguneko hainbat bideo dituzue bilduma honetan. Horietako batzuk argitaratutako ipuinen bideo-egokitzapenak dira. Beste batzuk, berriz, euskal mitologiako hainbat pertsonaiaren inguruak.